

IKUBIŁAK GORA!



GUNOKAZ, irakurle, ikubilak gora jasota safi ikusiko dozuz gizonak; baina emakumeak be. Zetarako edo zer dala-ta jasoten ete dabez? Kristauaren ezaugaria badakizu zein dan: gurutzea egin daroagu ta kristautzat gaukiez. Ikubilak gora jasota dabezanok, sozialista-komunistok be, euren ezaugaria dabe: ikubilak gora. Orixegaitik, gizarte-zale ta enparauok nortzuk doguzan jakin daigun, ukabilak gora jasoten dauskuez. Gauza bafegañijagorik!

Gauza bafegañia dala diñot, eta ofelaxe da izan be. Niri ofaitiño ofela ikusten dodazan guztiak dartada negargaria emoten dauste. Lengo egunean, or Bizkai'ko efítxo baten batzaña, obeto mitiña, drogea, euki eben ikubila jasoten dabenok. Bilbo'tik eta albo erietatik naikoa batu ei-zan. Ara joyazala, aren zaratea, aren iskanbila, aren biraua! Praile ta abadeai ez eutsoen bakanbila, aren gañaziak onetaikoren bat ikusten kean itxi gura. Aren gañaziak onetaikoren bat ikusten ebeneko! Bera ofeik! Bera ořeik! iñoen, amoñu bizitan. Munduko arereriorik andienak praile-abadeak dabez, urean.

Gizonak diranez goñoto dabezanik ez dot uste; baña bai eleiz-gizonak diranez. Eleizakoak dira ta amoñu bzia dautsie. Or dabiltz, iñoz be aspertu barik, eleiz-gizonak eta Eleizea luña iota itxi nayan. Euren amoñu ixiotua zelanbait asetu gura-ta, eleiza ta jauretxe askori su emon dautse, ta gero, pozaren pozez, su-garak zerua zelan goñitzen dauan ikusi.

Itsua alakoak! Eleizeak zer egin ete dautse basati

oñei euren izakera suminkoña ainbesterano biztuteko? Kalterik ezetan bez. Sortu ebanaren antzera, gizaldiak zear on baño ez dau egin: «pertransit benefiendo». Bai, Eleizeak on baño ez dautso egin gizatasunari. Gauza txar asko esan da Eleizearen kontra; erlejiñoa bide dala gaiztakeri andiak egin bear izan ditu. Gizon nabarmen askorentzat bazkun ezesgaria dozu Eleizea. Eta gizon nabarmenok, burua jakituntzat daukienok, euren Eleizeaganako amoñu ori eritar ez-jakiñen artean biztu nairik, itxusi, motz, gaizkile, ezesgari margoztutenean dute.

Baña Eleizea, oñek gizon gaiztuok diñoen lakoa ezta, irakurle. Jesu-Kristo ontasuna bera zanak, gauza txañik ezin leikean sortu. Eleizea Ama on-samurá dogu beraz. Elerti, jakintza ta abar berak indartu ditu; gogoak argiz ta biotzak pozez berak ase ditu; lugintza, ekintza, sal-erosketa ta abañen zaindari dozu; sendi-bizitza berak eratu dau; gizartea bafiztu be bai: yopuak yarein, esku-lana urendu, agintaritza neuritu, menpetasuna goitu, egiazko azkatasuna, bidezko bardintasuna ta benetako anaitasuna sortu. Goi-goi jafi ebazan txiro, beartsu, txiki ta aulak.

Alan be, Eleizeak arerio andiak ditu. Zer dala-ta? Ain ongiñe andia ba-da, zergaitik ainbeste etsai gaizto? Egi biribila: Eleizeak ontasuna baño ez dau ereiten, baña sañi esker txaría artu. Augaitik ez aritu ostera. Zeuk be, irakurle, on-egin ařen, askotan esker txaría artzen dozu; beste ainbeste jazoten da Eleiza Ama deunagaz be.

Gizona zoroa baizen ergela dozu, ta bere zorakeriak ertzik ez dabe; gauza egige ta mordoloenak siñistuko dautzuz. Eta Eleizea ongiñe andia izan ařen, munduan beti izan dira esker gaiztoa agertu dautsoen gizonak. Ama izan ařen, sasi-amatzat artu dabe, guda gozoa bere kaltez egiñik. Oindiño geyago: gizona zoroa

ezeze gaiztoa be ba-da. Eta gaiztoa on-egiteak eurak be ez dabe biguntzen, geyago ta geyago sumindu baño. Txarkeriak ezin dau onoimenik ikusi. Gaiztoa jayotzatik da onaren arerio. Eleizeak ba-dakizu, ba, zegaitik daukozan ainbat eta ainbat arerio donga. Eleizea onaren ituri dozu, ta onaren ituri dalako, lur-ganean bizi diran gaiztoak beste arerioa ditu. Nai ta nai ez be, asko. Eta arerio oñiek ikubilak gora jasoten dabez. Zer dala-ta? Eleiza ori il, ezestu gura leukielako; baña alperik; arerio guztiak batu ařen, ez dabe ezer egingo bere aurka.

JAGOBIA, K. O.

IZONTZITXUA

Kaiatik bizkor izontzitzua
-Atzean bitz guria-,
Zurunbilo ta egok aldizka
Jo oyal txiki zuria.

Mendi galurian begira nintzan,
Eta an urun-aldean,
Gentz labur-ondo, ondoratu, ai!
Uin aparisuen mendean.

Ta norbaitek ots ene barnean
Norbaitek ots urduri:
Ora ire bizi-iduri.

ARLABAN